



## **A - 1. KULTURARTEKOTASUNA SUSTATZEKO PROGRAMA: kulturarteko dinamizazioa eta hizkuntza-errefortzua**

Gure eskoletan bizi dugun kultura-aniztasunak gure erantzuna eskatzen du, eta, era berean, agerian uzten dizkigu gure eskola-sistemak dituen premietako batzuk. Hezkuntza-sistemak errealitate horri ematen dion erantzuna hobetzen bada aldaketa-prozesuak egiteko gai izango gara, ikasle guztiak arrakasta izan dezaten eskolan. Erantzun horrek izaera orokorra izan behar du, eta ikastetxeko baliabide arruntak eta aparteko baliabideak erabili behar dira erantzun hori emateko.

Hezkuntza-ikuspegiak bere baitan kulturartekotasunaren aldagaia aintzat hartuko badu, errespetatu eta balioetsi egin behar du kultura-aniztasuna, eta adierazi dugun planteamendu orokor horrek bi helburu hauek izan behar ditu:

- egungo trukeak indartzea, kulturen arteko elkarrizketaren bidez aberastu daitezen kultura guztiak.
- aukera-berdintasuna sustatzea, eta kultura-talde guztiei (gehiengoak direnei eta gutxiengo direnei) ematea konpetenteak izateko eta gizarte konplexu eta anitzean txertatzeko behar dituzten baliabideak.

Eskola kulturarteko hezkuntzaren ikuspegitik birpentsatzeko, planteamendu inklusibo baten bidez lotu behar dira norberaren egiturak eta printzipioak, hau da, guztiontzako eskola izan behar du, eta:

- Ohiko jardunek eta jakintzek izan behar dute hobetzeko abiapuntua.
- Ikasteko aukera moduan ikusi behar ditu diferentziak, eta ez konpondu beharreko arazo moduan.
- Ikasleek, familiek eta irakasleek parte hartzeko dituzten oztopo eta eragozpenak aztertu behar ditu.
- Modu eraginkorrean erabili behar ditu eskura dituen baliabideak, ikaskuntza-prozesua laguntzeko (ikasteko baliabide gisa baliatzen du komunitatea).
- Hobekuntza-prozesuak abiatzen laguntzeko baldintzak sortu behar ditu.

Esparru horren baitan, bi deialdi hauek aurkezten dira:

A.1.1 – Kulturarteko dinamizazioa.

A.1.2 – Hizkuntza-errefortzua.



### A.1.1.- Kulturarteko dinamizazioa

#### *Deialdiaren xedea*

Kulturarteko dinamizazioko programa abiarazi edo jarraitzeko, baliabideak esleituko zaizkie ikastetxe publikoei, baldin eta Lehen Hezkuntzan ikasle immigranteak %25 baino gehiago badira eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan %15 baino gehiago baldin badira 2011-2012 ikasturtean. Deialdiari dagokion data-egunean, 1. eranskinean adierazten direnak dira ikastetxe horiek.

#### *Esleipena*

Hautatutako ikastetxeek beren plantilla irakasle ½ batean handitzeko esleipena izango dute, kulturartekotasun-ikuspegia eskuratzeko eta garatzeko prozesua koordinatzeko.

#### *Programa lantzeko jarraibideak*

Kulturarteko dinamizazioko programaren helburua da ikastetxeak hausnarketako eta hobekuntzako prozesu bat abiatzea kultura aniztasunaren inguruan, eta, testuingurua eraldatzeko prozesuak egiten ari diren ikastetxeen kasuan, baliabideak integratzea eta haien eragingarritasuna optimizatzea.

Zuzendaritza-taldea izango da proiektuaren lidergoa eramango duena. Hasiera batean, zuzendaritza-taldeak ikastetxeko koordinazio-taldeetakoren batean sartuko du koordinatzailea (Koordinazio Pedagogikoko Batzordea, Bizikidetzaren Batzordea, Aniztasunari Arreta emateko Batzordea, etab.) eta/edo proiektua koordinatzeko taldea sortzeko laguntza emango du. Talde hori sortzekotan, ikastetxearen errealitatea islatu beharko du eta zuzendaritza-taldeko kide batek parte hartuko du gutxienez talde horretan, hura koordinatzen duen pertsonari edo pertsonari laguntzeko. Hori egin ondoren, espazioak eta denborak jarriko ditu koordinatzaileak eta laguntza-ataldeak proiektua zehaztu, landu eta egiteko aukera izan dezaten.

Egiteko hauek izango ditu programaren koordinatzaileak:

- Harrera-plana egiten, abian jartzen, haren jarraipena egiten eta ebaluatzen laguntzea. Planaren helburua izango da ikasle guztiak eta haien familiak hezkuntza-sisteman sartzen laguntzea.
- Lan egingo du ikastetxean, ikasgeletan eta material eta baliabideetan ager daitezkeen eskola-komunitateko kultura guztiak, eta bereziki balioetsiko du protagonisten parte-hartzea eta ekarpenak.
- Ikasle immigranteak eta gutxiengo etnikoetako ikasleak ikasgelan integratu eta haiei hezkuntza-arreta emateko estrategia, prozedura eta baliabideei buruzko irakaskuntza-esperientziak bildu eta irakasleen artean ezagutarazi behar ditu; horrez gain, haiek erabiltzeko laguntza emango die irakasleei.
- Zuzendaritza-taldearekin eta irakasleekin lan egingo du ikastetxea familiengana, eta bereziki, ikasle etorri berrien familiengana gertura dadin; eta, horrez gain, eskola-komunitatean integratzen lagunduko die.
- Zuzendaritza-taldearekin lan egingo du ikastetxeko prestakuntza-plana egiteko. Plana egitean, aintzat hartu behar da ikasle etorri berrien presentziak dakarren errealitate berria. Prestakuntza-plan bat antolatzeke konpromisoa hartuko du ikastetxeak, eta, plan horretan, irakasleak, ikasleak eta familiak kulturarteko ikuspegiaren sentsibilizatzeko jarduerak jaso behar ditu.
- Ikastetxeko proiektuen gainerako arduradunekin koordinatzeko espazioak eta denborak ezartzea. Horren helburua izango da baliabideak biltzea eta haiei ahalik



eta etekin handiena ateratzea, lehentasunezko jarduerak finkatzea eta haien lankidetzazko jarraipen bat egitea.

Jarduera guztiak inklusioaren ikuspegitik proposatuko dira, hau da, ikastetxeko ekintza-plan batean sartuko dira, eta ikasle guztiei zuzenduko dira. Beste eragile batzuekin (familiekin, gizarte-taldeekin, eta abarrekin) lan egiteko aukera eman behar dute eta eskolako errendimendua eta arrakasta handitzeko helburu orokorrari lotu behar zaie.

### ***Berariazko betebeharrak***

Proposatutako ikastetxe guztiek egin eta abiarazi behar dute, oraindik egin gabea badute, ikasle atzeritarrei Harrera egiteko Plan bat. Ikastetxe guztien egitekoa izango da plan hori eguneratzen joatea, hura hezkuntza-komunitateko ikasle, irakasle, administrazio eta zerbitzuetako langile guztiengana eta komunitate horretan sartzen diren familia guztiengana zabaltzeko.

Irakasleak, ikasleak eta familiak kulturartekotasunaren ikuspegitik sentsibilizatzeko ekintzaren bat jaso behar du ikastetxeko prestakuntza-planak.

Programaren koordinatzaileak edo koordinatzaileek konpromisoa hartuko dute berritzeguneez proposatzen duten prestakuntza espezifikoa parte hartzeko eta beren esperientziak konpartitzeko Hezkuntza Sailak hala eskatzen dienean. Horretarako, irizpide orokor moduan, proposatzen da asteazkenak gordetzea prestakuntza-jarduera horiek egiteko.

**ADI:** Programak bat etorri behar du deialdiko jarraibide orokorretan zehaztutako baldintzekin (bigarren jarraibidea), betebeharrekin (zazpigarren jarraibidea), eta jarraipenarekin eta ebaluazioarekin (bederatzigarren jarraibidea).



## A.1.1 -1. ERANSKINA DEIALDIAN PARTE HAR DEZAKETE IKASTETXEAK

### A) LEHENENGO HEZKUNTZA

Kodea	Ikastetxearen izena	Lurraldea
010080	CEIP PADRE ORBISO HLHI	ARABA
010100	CEIP RAMÓN BAJO HLHI	
010105	CEIP SANTA MARIA DE VITORIA HLHI	
010167	CEIP NTRA. SRA. DE IBERNALO IK.	
010230	CEIP SAMANIEGO HLHI	
010231	CEIP SAN IGNACIO HLHI	
010332	CEIP LÓPEZ DE GUEREÑU HLHI	
010333	CEIP JUDIMENDI-CANCILLER AYALA HLHI	
010340	CEIP DIVINO MAESTRO HLHI	
010343	CEIP ARANBIZKARRA IKASTOLA HLHI	
010504	CEIP ZABALGANA HLHI	
012051	CEIP VIRGEN DE ARRATE HLHI	GIPUZKOA
012186	CEIP CATALINA DE ERAUSO HLHI	
012977	CEIP LEKA ENEA HLHI	
013002	CEIP BELASKO ENEA HLHI	BIZKAIA
014046	CEIP JUAN RAMON JIMENEZ HLHI	
014048	CEIP LARREA HLHI	
014057	CEIP ZUAZO HLHI	
014108	CEIP BASURTO HLHI	
014111	CEIP CERVANTES HLHI	
014114	CEIP DEUSTO HLHI	
014115	CEIP ELEJABARRI HLHI	
014119	CEIP GABRIEL ARESTI HLHI	
014123	CEIP ING. JOSÉ ORBEGOZO HLHI	
014124	CEIP JUAN SANCHEZ MARCOS HLHI	
014127	CEIP MINA DEL MORRO HLHI	
014137	CEIP PIO BAROJA HLHI	
014150	CEIP TOMAS CAMACHO HLHI	
014153	CEIP URIBARRI HLHI	
014291	CEIP LARRAÑAZUBI HLHI	
014294	CEIP SAN IGNACIO HLHI	
014332	CEIP LAMIAKO HLHI	
014395	CEIP RUPERTO MEDINA HLHI	
014396	CEIP VIRGEN DE LA GUÍA HLHI	
014413	CEIP LAS VIÑAS HLHI	
014437	CEIP VISTA ALEGRE HLHI	
014454	CEIP AREATZA HLHI	
015015	CEIP ROMO HLHI	
015099	CEIP MUGICA-SOLOKOETXE HLHI	
015360	CEIP MIRIBILLA HLHI	



## B) BIGARREN HEZKUNTZA

Kodea	Ikastetxearen izena	Lurraldea
010018	IES CAMPEZO BHI	ÁLAVA
010133	IES FEDERICO BARAIBAR BHI	
010134	IES FRANCISCO DE VITORIA BHI	
010135	IES LOS HERRÁN BHI	
010331	IES SAMANIEGO DE VITORIA BHI	
010335	IES BADAIA BHI	
010349	IES SAMANIEGO-LAGUARDIA BHI	
010572	CPI SANSOMENDI IPI	
012225	IES BIDEBIETA BHI	GIPUZKOA
012740	IES LEIZARAN BHI	
012946	IES SORALUZE BHI	
012967	IES HIRUBIDE BHI	
012969	IES DUNBOA BHI	
012983	IES LASARTE-USURBIL BHI	BIZKAIA
014064	IES ANTONIO TRUEBA BHI	
014088	IES BIDEBIETA BHI	
014187	IES MARTIN BERTENDONA BHI	
014190	IES TXURDINAGA BEHEKOA BHI	
014191	IES RECALDEBERRI BHI	
014200	IES ESKURTZE BHI	
014205	IES EMILIO CAMPUZANO BHI	
014299	IES JULIO CARO BAROJA BHI	
014301	IEFPS FADURA GLHBI	
014398	IES J.A. ZUNZUNEGI BHI	
014440	IES ANGELA FIGUERA BHI	
014451	IES BALMASEDA BHI	
014456	IES ARRATIA BHI	
015079	IES ZURBARAN BHI	
015083	IES ASTRABUDUA BHI	
015085	IES ONGARAI BHI	
015094	IES SOPELANA BHI	
015108	IES MUNGIA BHI	
015110	IES TXURDINAGA-ARTABE BHI	
015111	IES ARTAZA-ROMO BHI	
015625	IES KANTAURI BHI	
015627	IES URRITXE BHI	



## A.1.2.- Hizkuntza-errefortzua.

### *Deialdiaren xedea*

Deialdiaren xedea da Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasten duten ikastetxe publikoak hautatzea, 2011-2012 ikasturtean Hizkuntza Errefortzuko Programak egin ditzaten, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan sartu berriak diren ikasleei (2010/01/01etik aurrera sartutakoei) arreta emateko, baldin eta Hizkuntza Errefortzuko Plan baten beharrea badaude. Jarraibide hauetan adierazten diren helburu, ezaugarri eta baldintzak betez egingo da hori guztia. Plan horien hartzaile izan daitezke, halaber, lekualdatzeagatik B edo D eruedetan sartzen diren ikasleak.

### *Esleipena*

Hautatutako ikastetxe publikoek aparteko baliabide pertsonalak izango dituzte: dedikazio oso edo partzialeko baliabideak izango dira, ikastetxe bati esleituak edo zonalde batean ikastetxe batzuen artean konpartituak.

Hizkuntza-errefortzuaren interbentzioa ikastetxera destinatutako irakasleek egingo dute, edo, halaber, ikastetxean Hizkuntza Errefortzuko Programa 2004-2005 ikasturteetik eraman duen irakasleak, ikastetxeko zuzendariak proposatuta. Irakasle horiek 2. hizkuntza-eskakizuna beteta izan behar dute eta behar adinako prestakuntza edo esperientzia profesionala hizkuntzen didaktikan eta aniztasunaren tratamenduan.

### *Programa lantzeko jarraibideak*

Helburu hauek proposatzen dira deialdi honetan:

- a) Euskal hezkuntza-sistemara iritsi berriak diren ikasleen barneratzea erraztea, eskola-ingurunean ahalik eta azkarren integratu daitezen eta ahalik eta baldintza onenetan.
- b) Ikasle horiei berriazko arreta ematea, beren irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuan baliatu behar dituzten hizkuntzen gaitasun linguistikoak eta komunikatiboak eskura ditzaten, curriculumean egin beharrekoak izan daitezkeen doiketak eginez.

Proposatutako helburuak betetzeko, jarduera-printzipio hauek hartuko dira kontuan:

- Jarduerak aldaketak eragin ditzakete ikastetxearen antolamenduan eta funtzionamenduan.
- Ematen den hezkuntza-erantzunak aintzat hartzen ditu ikasleen beharrezko linguistikoak, interesak, ezaugarriak, esperientziak, hizkuntza eta kultura, eta beren ahalmen guztiak garatzeko eskubidea bultzatzen eta errespetatzen du. Hori horrela izan dadin, neurrietako bat curriculumak aberastea izango da, hura murriztu edo sinplifikatu beharrenean.

Ikastetxearen zuzendaritzak hartuko du beren gain proiektuaren ardura. Horrek esan nahi du, besteak beste, ez dela programa identifikatuko hizkuntza-errefortzuaren ardura duten irakasleekin, eta irakasle-talde guztiarena izango dela programa diseinatu, garatu eta jarraitzeko ardura. Zuzendaritza-taldeak antolatuko ditu koordinazio hori egiteko espazioak eta denborak.

Ikastetxearen jarduera-plan orokor bat egiteko dinamizazio-lanak egingo ditu zuzendaritza-taldeak, hizkuntza-errefortzuaren premian dagoen ikasleekin lan egiteko. Plan horrek zehaztu egingo ditu metodologia-alderdi nabarmenak eta antolamenduko eta funtzionamenduko neurriak. Horrez gain, tutoreekin, orientatzaileekin, aholkulariekin eta,



halakorik balego, ikastetxearen kulturarteko dinamizatzailearekin koordinatzeko plana bultzatuko du.

Hizkuntza-errefortzuko lanak egingo dituzten pertsonen egitekoak hiru multzotan banatzen dira:

- a) Hizkuntza-errefortzuko irakasleek egitekoak izango dira:
- Hizkuntza-errefortzuko gelako programazioa egitea, hura ikasleen premietara egokituz.
  - Tutoreari laguntzea ikasle horiekin Banakako Interbentzio Plana egiten.
  - Ikaslea ezagutzea eta biltzea.
  - Material didaktikoak aztertu, antolatu eta prestatzea, ikuspegi egokia erabiliz.
  - Dagokion hezkuntza-errefortzua ematea.
- b) Hizkuntza-errefortzuko irakasleek egiteko hauek konpartituko dituzte ikasle etorri berriaren tutorearekin:
- Gainerako irakasleekin koordinatzeko prozesu bat ezartzea, Banakako Interbentzio Plana egin eta haren aplikazioaren jarraipena egiteko.
  - Etorri berriak diren ikasleen harrera eta inklusioa erraztea, beren gaitasunak garatzen laguntzea eta ikastetxeko jardueretan parte har dezaten sustatzea.
  - Ikasleen aurrerapenak eta ikasketak ebaluatzen parte hartzea.
  - Materialak eta edukiak egokitzea zikloko eta etapako curriculumaren ikuspegitik.
- c) Eskola-komunitateko kide diren aldetik, hizkuntza-errefortzuko irakasleek egiteko hauetan parte hartuko dute gainerako irakasleekin:
- Hizkuntzak irakasteko jardueren plangintza egitea.
  - Hezkuntza-prozesuan kulturarteko ikuspegia sartzeko jarduerak diseinatzea.

### ***Baremoa***

1. Ikastetxeko ikasle immigranteen portzentajea **P** (LH eta DBH)

$P < 2$	0 puntu
$2 \leq P < 5$	1 puntu
$5 \leq P < 10$	2,5 puntu
$10 \leq P < 15$	4 puntu
$15 \leq P < 20$	5,5 puntu
$20 \leq P < 25$	7 puntu
$25 \leq P < 30$	8,5 puntu
$30 \leq P$	10 puntu



2. Deialdi honetara atxikitako ikasle etorri berrien (2010/01/01etik aurrera etorritakoen) kopurua Lehen Hezkuntza eta DBHn.

Lehen Hezkuntza	DBH	Puntuak
3-6	2-4	3 puntu
7-11	5-7	6 puntu
12-16	8-10	9 puntu
17-20	11-13	12 puntu
21-25	14-17	15 puntu
26-30	18-20	18,5 puntu
>30	>20	22 puntu

Oharra: Bi ikastetxek edo gehiagok batera egiten dituzten eskaerak, ikasleek kopuruak dedikazio osoko baliabide bat esleitu ezin den kasuetan, batera barematuko dira, batera aurkeztutako datuen batez bestekoa eta konpartitutako proiektua kontuan hartuta.

#### ***Berariazko betebeharrak***

Ikasgela normalean emango da, lehentasunez, hizkuntza-errefortzua. Ikasgela normaletik kanpo egiteko neurriak aurreikusten badira, ikasleak ez dira erreferentziako taldetik kanpo eskola ordutegiaren  $\frac{1}{4}$  baino gehiago izango Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan eta ordutegiaren  $\frac{1}{3}$  Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan.

Banakako Interbentzio Plan bat izango du ikasle bakoitzak, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren esku izango dira. Ikasle bakoitzaren egoera pertsonaletara egokituko da plana, eta alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Ikaslearen egungo egoeraren deskribapena: datu pertsonalak; hezkuntza-ibilbidea; eremu sozio-afektiboa (izaera, trebetasunak); eremu akademikoa (eremu instrumentalak).
- Hizkuntzen eremuan landu beharreko helburuak, eta, beharrezkoa bada, sozializazio-prozesuak eta curriculumeko gainerako eremuak. Ebaluazio-prozesua adieraziko da. Curriculumaren eremu edo areatan egiten diren doiketak erreferentzia gisa hartuko dira ebaluazio-prozesuan.
- Interbentzio Plana zehaztu behar du, eta, berariaz, ikaslearen ordutegia, errefortzu-mota (ikasgelaren barruan edo hartatik kanpo...), irakasleen eta ikaslearen arteko koordinazioa eta planaren ebaluazioa.

**ADI:** Programak bat etorri behar du deialdiko jarraibide orokorretan zehaztutako baldintzekin (bigarren jarraibidea), betebeharrekin (zazpigarren jarraibidea), eta jarraipenarekin eta ebaluazioarekin (bederatzigarren jarraibidea).



## A.1.2 – 1. ERANSKINA

## APARTEKO BALIABIDEEN ESKAERA

Ikastetxea: .....Kodea: .....

Udalerria: .....Lurraldea: .....

  
  


dedikazio eskusiboa duen irakaslea

dedikazio partziala duen irakaslea

Irakaslea konpartitzen da ikastetxe honekin .....

**EAE-KO\* HEZKUNTZA-SISTEMARA IRITSI BERRIA DEN  
IKASLEAREN DATUAK (2010/01/01 ETIK AURRERA)**

	ABIZENA ETA IZENA	Maila	Hizkuntza-ered.	Jaiotze-data	Sarrera-data	Jatorrizko herrialdea
1						
2						
3						
4						
5						
6						
7						
8						
9						
10						
11						
12						
13						
14						
15						
16						
17						
18						
19						
20						

\*EAEko hezkuntza-sisteman sartu zen eguna (2010/01/01etik aurrerakoa izan behar du)

....., 2011ko ..... ren .....(e)an  
Ikastetxeko zuzendaria eta ikastetxeko zigitua

Izpta.: .....